

RUAILLE

RULA-BULA

BUAILLE



www.ruaille-buaille.com




Ruaille-Buaille "Rula-Bula" ahoskatzen da, eta giro bizi, alai eta zalapartatsua adierazi nahi du Irlandako gaelikoan. Izenak izana islatzen du, horrelako giroa sortzen baita emanaldietan, hala taldekideen artean, nola entzuleekin ere.

Taldea 2005ean sortu zen, Barakaldon (Bizkaia), lehen elkarrekin ibilitako lagun batzuk berriz bildu zirenean, folk sessionen giroan. Ordudanik, taldeak aurrera egin du hasierako boskote akustiko hartatik, non melodía soilak ia nagusi ziren musika tradizionaleko erreperitorioan, eta doinuek kutsu zelta nabarmena zutelarik, azkenean, oraingo seikotearen formatura iritsi arte, erritmo-oinarri sendoaz, estilo eta konposizio propioekin, musika-tradizio desberdinak gaur egungo formatu modernoagoetan elkar harturik aurkeztuz.

Taldeak RUNAS 2013 lehiaketa irabazi zuen, Ortigueirako Mundu Zeltako Nazioarteko Jaialdian, hiru disco plazaratu ditu eta, dagoeneko, hurrengo grabazioa osatuko duten konposizioak jorratzen eta atontzen dabil.

Beraz, sei lagunek osatzen dute taldea, nork bere jatorriko musika-esparrua duela: galiziarrak, Euskal Herrikoak, zelta, blues, folk-rock, klasikoa...

- Duncan Bennett: ahotsa, guitarra akustikoa, bouzouki
- Alberte Sanmartín: whistle, flauta, Galiziako gaita, uilleann pipes, ahotsa
- Aitor Gorostiza: whistle, harmonika, alboka, boha, tarota
- Luis M. Aveleira, "Beltza": baxu elektrikoa, ahotsa
- Jon Hanni Iribar: bateria
- Mario Martín: biolina




DISKOGRAFIA

1. “Pronounced rula-bula” (2009)



Hasierako boskote akustikoaren sorrerako estiloa erakusten du, irlandar sessionetako musikan oinarritua, giro horretan sortu baitzen taldea.

2. “Blue Jig” (2011)



Taldea seikote bihurtu da, bateria sarturik, eta horrek, baxu elktrikoarekin batera, indartu egin du erritmo-oinarria.

Hasi da apustua kideek sortutako konposizioen alde eta estiloa gaurkotzeko, musika zeltatik haratago, beste musika-estilo batzuen bidez.

Aparteko kolaborazioak biltzen ditu: Kepa Junkera, David Nanclares, Ruben Isasi, Xabier Valle, Endika "Lahaine"... Kritika bikainak jaso zituen eta "FROOTS" aldizkariak ere iruzkindu zuen.

3. “Bon temps, Ruaille?” (2014).



Biolin jotzaile berria sartzen da taldera eta finkatu egiten da taldearen estiloa.

Oraindik ere bada kutsu zelta oinarrian, baina nabarmenagoak dira beste musika eta joera batzuk disco honetan, taldeak sortutako piezetan bildurik.

Honetan ere, aparteko kolaborazioak: David Nanclares, Eider Zenarruzabeitia, Ruben Isasi, Endika "Lahaine", Alain Sancho, Argibel Euba, Javier Ortiz de Zarate eta Michel Gardie

TALDEKIDEAK



Duncan BENNETT

Ahotsa, gitarra akustikoa, bouzouki

Aurreko taldeak: The Blue Fibers eta Sugán. Erresuma Batuan bakarlari hasi eta, gerora, hainbat taldetan parte hartu zuen Manchester aldean. Europan eta Amerikan kale-musikari ibili ostean, Bilboaldera heldu eta bertan finkatu zen. Grabazioak: The Blue Fibres: "The Blue Fibers" (1987), Sugán: "Sugán" (1996), Hala Dzipo: "Hodei baten bidaia" (2013). Ruaille-Buaille: "Pronounced rula-bula" (2009), "Blue Jig" (2011) eta "Bon Temps, Ruaille?" (2014).



Alberte SANMARTÍN

Galiziako gaita, uilleann pipes, low, tin whistles, ahotsa

Galiziako gaitako irakaslea 1987tik. Hiru aldiz finalista "Constantino Bellón" txapelketan: 1995, 97 eta 99. Xolda, Sugán, Sons do Muíño eta Feile taldeetako kidea izan da eta hainbat artista laguntzen ere ibili da: Kepa Junkera, Dronadar taldea, Oskorri, Eskorbuto, Elurretan, Hala-Dzipo, Country Basque... "O Pentafol" CD-liburua egin zuen eta Ceo do Sil gaita-bandako kidea da. Grabazioak: Xolda: "Escolma" (1993), "Xolda" (1994), Sugán: "Sugán" (1996),

Sons do Muíño: "No Chao do Souto" (1997), Synergy: "Celtronic Project" (2001), Feile: "Feile" (2004), Oskorri: "Landalan" (1995), "25 Kantu Urte" (1996), Eskorbuto: "Dekadencia" (1998), batzuk: "Euskadi Galiziarekin" (2003), Salbuespunk: "Keinuak" (2007), Ceo do Sil: "Hai que dar cera!" (2012), Hala Dzipo: "Hodei baten bidaia" (2013), Kepa Junkera: "Galiza" (2013). Ruaille-Buaille: "Pronounced rula-bula" (2009), "Blue Jig" (2011), "Bon Temps, Ruaille?" (2014).




Aitor GOROSTIZA

Low & tin whistles, flauta, harmonika, alboka, boha, tarota

Euskal Herriko musika-tresna tradizionalen esparrutik etorrita. Aurreko taldeak: Izeki, Oskorri eta Sugán. Folketa taldeko kidea ere bada, gaur egun. Grabazioak: Izeki: "...Geldiro Datorkit Ur Berria" (1986), Oskorri: "Hi Ere Dantzari" (1991), "Offeko maitasuna" OST (1992) eta "Badok Hamahiru" (1992), Amaia Uranga: "Lilura Urdinak" (1992), Koldo Ameztoi & Bixente Martinez: "Behin Bazen" (1992), batzuk: "Bizkaiko Dultzaina" (1995), Sugán:


"Sugan" (1996), Xolda: "Xolda" (1994), Arrotzak: "Strangers in Transito" (1997), Eskorbuto: "Dekadencia" (1998), Laguntasuna: "1949-1999" (1999), Hala Dzipo: "Hodei baten bidaia" (2013). Ruaille-Buaille: "Pronounced rula-bula" (2009), "Blue Jig" (2011) eta "Bon Temps, Ruaille?" (2014)



Luis M. AVELEIRA

Baxu elektrikoa, ahotsa

Beste talde batzuetan ere ibili da: Jirabiraka, Erre K Erre eta Salbuespunk. Grabazio hauetan parte hartu du: Salbuespunk: "Keinuak" (2007), Jirabiraka: "Buelta Bat Emanda" (2009), Ruaille-Buaille: "Blue Jig" (2011) eta "Bon Temps, Ruaille?" (2014).



Jon Hanni IRIBAR

Batería

Gazte-gazterik, 14 urte zituela, bateria ikasten hasi zen, Mr. Jam musika modernoko eskolan; Víctor Celada eta Blas Fernandez irakasleekin. Estilo desberdinako taldeetan ibili da: rock, blues, pop, funky... Leioako Musika Bandako perkusionista izan da 5 urtez. Musika-jarduna jazz-ikasketekin uztartzen du, Miguel Salvador eta Blas Fernandez. Gidari. Grabazio hauetan parte hartu du: Efecto Doppler: "Primer acto" (2003) eta "Hotel


Continental" (2011), Decima Avenida: "Llegaré esta tarde" (2008), Ruaille-Buaille: "Blue Jig" (2011) eta "Bon Temps, Ruaille?" (2014).



Mario MARTÍN

Biolina

Musika-ikasketak 7 urterekin hasi zituen. Prestakuntza klasikoduna da, baina musika tradizionalaren arloan ere trebatze eta sakonze-lanak egin ditu, batez ere, irlandar eta eskoziar musikaren arloan. Musika-irakaskuntzan dihardu, Country Basque taldeko kidea da eta hainbat orkestratan kolaboratzen du, hala nola Euskal Herriko Gazte Orkestran, Euskadiko Orkestra Sinfonikoan eta The World Orchestran, bertoko zein kanpoko areto ospetsuetan joz (Txina, Belgika, Frantzia, Irlanda). Grabazioa: Ruaille-Buaille: "Bon Temps, Ruaille?" (2014); Country Basque: "Made in Basque Country" (2016).



KONTZERTUAK



Ruaille-Buaillek talde berrientzako 2013 RUNAS lehiaketa irabazi zuen Ortigueirako Nazioarteko Mundu Zeltako Jaialdian, baina, 2005ean sortu zenetik, penintsulako bazter askotan erakutsi du bere lana: Bizkaiko GETXO FOLK jaialdia, Portugaleteko FOLKLORE-AZOKA eta BARAKALDO-ANTZOKIA, Galiziako PARDIÑASKO jaialdia, Madrilgo LOS VIERNES DE LA TRADICIÓN (San Sebastián de los Reyes), ARANJUEZ FOLK eta VILLA DE MÓSTOLES antzokia, Asturiasko LA FOLIXA DE PRIMAVERA (Mieres), Kantabriako LIENCRESKO eta OREJOko folk-jaialdiak, Extremadurako FESTISIERRA jaialdia (Fregenal de la Sierra), Valladolideko "LAS 10Y LAS NOCHES" (Mucientes), Portugalgo BRAGANÇAko antzokia, eta abar, eta abar...

INFORMAZIO GEHIAGO

Taldeak informazio eta ikus-entzunezko ugari dauka interneten:

- Website: www.ruaille-buaille.com
- Facebook: www.facebook.com/ruaillebuaille
- Youtube: www.youtube.com/user/RBruaillebuaille
- Twitter: https://twitter.com/ruaille_buaille



HARREMANETARAKO

Taldearekin zuzenean kontaktatzeko:

- Telefonoa:
 - 696 96 39 40
 - 657 70 68 85
- E-mail: info@ruaille-buaille.com